



Aspaldiko kontuak dakarzkigu burura "nerabe" hitzak ezta? Ugariak bai dira garai bateko oroitzapenak, onak edo politikak zein txarrak edo itsusiak badira ere. Sarritan gizarteak heldua izateari ematen dion gehiegizko ardura nerabezaroari kaltetzen dio era zuzenean. Itakak ordea ez dauka horren argi, nerabetasunak eta heldua izateko eman behar diren pausoak daukate garrantzi handia.

Inpotentzia, maitasuna, kezka... edozein haur, nerabe edo heldu senti dezakeen sentsazioak dira. Sentsazio guzti hauek Itakaren musika indartsuarekin bat egiten dutenean, entzulegoari taldeak eraikitako mundu nerabe orretan erabat murgiltzen dio.

Itakaren lehenengo lanaren haurrean gaude, lan stoner, rockero eta gogorra, Queens of the stone ageren estiloa gogorarazten gaituena alegia. 2002an sortu zen laukote hau eta arrez geroztik lan gogorra egin dute. Pasadan urteko Euskadi Gazteko maketa lehiaketan lau onenatarikoen artean sailkatu ondoren euskal herritik zehar taldea ezagutzera eman zuten haien burua. Orain, бага-bigaren eskutik kaleratzen dute lan berri hau. Euskal Rock berriaren atarian al gaude?

Zumaiakoak gogor eta gogoz datoz beraien lehenbiziko disko honekin, euskal herriko entzulegoa doinu berri hauekin bereganatzeko. Rock indartsua, gitarra eta ahotsen modura, hitz batean, sendotasuna.

Diskoa 2006ko Udaran grabatua izan da Fidelenea estudioetan, Mikel Kazalisek (Anestesia, Negu Gorriak, Kuraia) ekoiztu eta nahastu duelarik.

Gaur egun Itaka musikaren nerabezaroan dagoela aitortzen du, egongo ote gara disko honekin Itakaren heldutasunerako lehenengo pausoan? entzun eta ondorioztatu.

**Aitor Aizpurua:** Ahots nagusia / **Iban Rubio:** Baxua  
**Jon Brakamonte:** Gitarra / **Unai Elizagirre:** Bateria



baga-biga musika ideiak  
221 Posta Kutxa - Mungia 48100 Bizkaia  
tel. 618 072 076 / 026  
[info@baga-biga.com](mailto:info@baga-biga.com) [www.baga-biga.com](http://www.baga-biga.com)